

noaua

**Txokoaldeko Akerra
berreraikitzen hasi dira**

**Covid19 kasuen kopurua
apaltzen hasi da**

**Larunbat honetan,
'Zaldi urdina' antzezlan
Sutegin**



**Etorkizuneko Zubieta
irudikatzen hasi dira**



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

**ALOKAIRURAKO PISUAK BEHAR DIRA,
ESKAERA HANDIARENGATIK!**

ALOKAIRU SEGURUA

**Zure etxerako inkilino bikaina
aurkituko dugu,
12 hilabeteko errenta bermatua.**

Etxebeste Kalea 15 - USURBIL 688 739 733 info@g15usurbil.com

USURBILGO JATORRI ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA LANTZEN

Urriaren 15ean, 18:00etan
Sutegiko auditoriumean
izena emateko: parekidetasuna1@usurbil.eus



Albisteak iruditan

'San Esteban 2' ur deposituko zati bat irazgaiztua

Ur deposituak dituen bi ontzietatik batean, ura bertatik kanpora isurtzen ari zen. Arazoa konpontzeko eta ura galtzea saihesteko, PVC xaflak jarri dituela berri eman du Usurbilgo Udalak.

Modu honetan, "San Esteban 2 ur deposituko zati bat irazgaiztu da", adierazi dute. Beste ontzian ere lehenik antzeko lanak egindakoa da Udala. "Ur depositu horrek bi ontzi ditu: horietako batek Aginaga hornitzen du, eta besteak, kaxkoa. Ura kaxkora bideratzen duen ontzia irazgaiztu du, PVC xaflak jarrita. Izan ere, ura ontzitik kanpo ari zen isurtzen: xafla horiekin, ur hori galtzea saihestuko da. Duela bi urte irazgaiztu zen Aginagako ontzia".

Aldaketa hau, ur horniduran egiten ari diren hobekuntza lanen baitan kokatzen du Udalak. "Herriarrek ez dute nabarituriko euren egunerokoa,



Ura ontzitik kanpo ari zen isurtzen. "Xafla horiekin, ur hori galtzea saihestuko da" dio udalak. Argazkia: Usurbilgo Udala.

baina uraren horniduran hobekuntzak egiten jarraitzen du udalak, eta lan ho-

ri esker, gure ura hobeto aprobetxatuko dugu".

Laburrean

Beherakada nabarmena langabetu kopuruan

Bigarren beherakada bigarren hilabetez jarraian. 284 langabetu zenbatu ditu Estatuko Enplegu Zerbitzuak irailean Usurbilen, abuztuan baino 13 gutxiago; 128 gizonezko, 156 emakumezko.

Gripearen aurkako txertaketa

Urriaren 13tik hasiak dira jartzen gripearen aurkako txertoa, bereziki arrisku taldeei. Urriaren 31tik aurrera herritar orori. Aurrez hitzordua eskatu anbulatorioan: 943 362 013.

Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du Covid19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaueus /// www.noaueus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaueus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaueus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Euskal Herrerria!



Luis Aranalde

Urretxutik mundura

Berrehun urte dira Jose Mari Iparragirre Balerdi jaio zela. Soldadu, arrakasta handiko musikari eta ikur bihurtutako herriz herriko kantari izan zen Iparragirre. Efemeride hori dela eta, Gorka Hermosa musikagile eta soinu-jotzailearen ustez 19. mendeko gure Elvis Presley izan zen. Garai honetan, hau da, erromantizismoan, hasi zen suspertzen folklorea eta musika herrikoia, horren adierazgarri F. Liszten “rapsodiak”, F. Chopinen “polonesak eta mazurkak”, P. Sarasateren “caprice basque”, besteak beste. Iparragirrek bere aldetik sorteria goretsi besterik ez du egiten eta ze karismarekin gainera! Gure musikagileen artean unibertsalenetako bat izan da.

Iparragirreren biografia laburtzen ez da erraza, baina saiatuko naiz bere bizitzaren une nagusienak azaltzen. Urretxun jaio zen 1820ko abuztuaren 12an. 14 urterekin soldadu bihurtu zen. Lehen Karlistaldia hasia zen eta Espainiako koroa eskuratzeko borroka dinastikoa izan zen gerra hori. Milaka euskal herritarrek beren eskubideen aldeko borroka gisa ulertu zuten gerra hori eta Karlos Borboikoaren alde hartu zituzten armak. Pare bat aldiz zauritua izan zen. Gerra galdu eta erbestera alde egin zuen Dantxarinearik barrena.

19 urterekin utzi zuen Euskal Herria “bizitzaren onenean”, bere esanetan. Paris, Lille, Lyon bisitatu zituen. Frantsesa ikasi zuen, frantses idazleak irakurri, kantua ikasi du eta uzten zioten toki guztietan kantatzen zuen eta



“Amaiera tristea izan arren, ezin da ukatu bere ekarpen oparoa. Artista peto-petoa izan zen eta oso herrikoia”.

LUIS ARANALDE

“Europar zehar hainbeste urte egin ondoren, 1851n Euskal Herrira itzuli zen. “Gernikako arbola” zortzikoa sortu eta kantatzen hastearekin batera, erabateko fenomeno mediatiko bihurtu zen Urretxuko bardoa”

ezagun egin zen dirudun jendearen etxe zaharretan zein kale kantoietan. Frantziako errepublikazaleen ereserkia kantatzeagatik atxilotu eta Frantziatik bota zuten.

Europar zehar hainbeste urte egin ondoren, 1851n Euskal Herrira itzuli zen. “Gernikako arbola” zortzikoa sortu eta kantatzen hastearekin batera, erabateko fenomeno mediatiko bihurtu zen Urretxuko bardoa. Jendea kantuz berotzen zuela eta, atxilotu egin

zuten Tolosan. “Zibilak esan naute/biziro egoki/Tolosan bihar dala/gauza erabaki. Giltzarian sartu naute/poliki-poliki/negar egingo luke/nere amak baleki”, dio bere zortziko famatuari.

Argentinara alde egin eta Anjela Kerejetarekin ezkondu zen. Zortzi seme-alaba izan zituzten. 19 urtez Argentinan eta Uruguayan bizi ondoren Euskal herrira itzuli zen familia Amerikan utzita. Erreztaldia han-hemenka emanez bizi izan zen. Baina entzuleek bizkarra eman zioten, izan ere ahotsik gabe gelditu zen eta zarpailduta. Kronistek diotenez auzokoen barrengarri bihurtu zen azkenean. 1881ean hil zen pneumoniak jota.

Amaiera tristea izan arren, ezin da ukatu bere ekarpen oparoa. Artista peto-petoa izan zen eta oso herrikoia. Nork ez dakizki dozena erdi bat melodia Iparragirrerenak? Abesti bikainaz aparte, oso hunkigarriak dira kanta batzuk: aipaturiko “Gernikako arbola”, “Ume

eder bat”, “Ara nun diran”... Benetan arimaraino sartzen zaizkizu abesti dotore horiek. Rapsoda ugari aritu izan da kantatzen, baina gutxi iraundu herritarren memorian. Ez da gure abeslariaren kasua. Gorka Hermosa soinu-jotzailearen ustez 19. mendeko gure Elvis Presley izan zen. Garai honetan, hau da, erromantizismoan, hasi zen suspertzen folklorea eta musika herrikoia, horren adierazgarri F. Liszten “rapsodiak”, F. Chopinen “polonesak eta mazurkak”, P. Sarasateren “caprice basque”, besteak beste. Iparragirrek bere aldetik sorteria goretsi besterik ez du egiten eta ze karismarekin gainera! Gure musikagileen artean unibertsalenetako bat izan da.

Antonio Maria Labayen gure idazle ospetsua adiskide izan nuen. Bere etxera joaten nintzen gaztetan pianoa lantzen. Bere hitz batzuekin amaitu nahi nuke Iparragirreren gaineko gogoeta hau. Honela zioen 1933an: “Iparragirre gaitzat hartu badet euskaltasunean ezagunenetakoa dalako izan da. Bai al zan aldi hartan beste gizon bat hain entzute orokorra izan zuanik? Europa guzira eta Amerikaraino heldu zan. Ezin ukatu diteke bere arlotekeria euskaltasunaren suspertzaile izan zala, Euskal Herria lozorroan eta argalduta zegoen garai hartan. Beste ezergatik ez bada ere haren oroipena omendu dezagun”.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo ballokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: urriak 23. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 19.

Ika-mika

Batzarre (Aurrera Gttunk 3)

Pasa den ekainaren 25ean udalbatza egin zen, 4 proposamen zituen mozioa lantzeko.

a) Egungo krisiari aurre egiteko proposamen baliagarriak aurkeztu ahal izateko parte-hartze-prozesua.

b) Usurbilen elikagaien norbere hornikuntzarako ikerketa.

c) Iturri berri tagarrien bitartez Kalezarren Energia sortzeko egitasmo bat ezartzeko ikerketa.

d) Eta laugarrena, Usurbilgo Batzarrea eratzeko Prozesu Konstituziogilea garatu ahal izatea, 3 fase izango dituena:

1. fasea. Informazioa- Ezagutza. Zenbait ikerkuntza-azterketa, saiakera, ezagutzera emango dira, Batzarrerekin loturikoak. Honako argitalpen hauek iradokitzen dira:

a) Batzarrak jatorrizko Antolaketa. Egilea: Patxi Azparren.

b) Batzarra gure gobernua. Egilea: Pablo Sastre Forest.

c) "Democracia y el triunfo del Estado". Egilea: Félix Rodrigo Mora.

d) Gizabidea. Egilea: Odón Ulibarrena

2. fasea. Debatea- Jendaurrean

3. fasea. Herri Kontsulta baten bidez Erabakia hartzea, Usurbilgo biztanlego osoak parte hartu dezan.

Udalean dauden alderdi guztien aurkako botoak gaitzetsi egin zuen 4 proposamenekin egindako mozioa. Jarraian, idazki honen sinatzaileak irakurritako testua azaltzen zaie Alkatetzari, Gobernu Taldeari eta Udaleko beste zinegotzi eta zinegotziei.

Bi aukera egin behar zenituzten: Espainiako Estatuaren parte den eta gutxi batzuek erabakiak hartzen dituzten

erakunde batek ematen dizuen botereari heltzea, edo erakunde propio eta demokratikoago baten aldeko apustua egitea, hala nola Batzarraren aldekoa, eta herriko jendeari erabakitze-ko ahalmena itzultzea. Baina Boterea aukeratu duzue.

Hartu duzuen erabakiaren larritasuna deskribatzen lagunduko zidan metafora baten bila nenbilen, eta uste dut Titanic-en filman nahiko ondo deskubritzen duen eszena bat dagoela. Eszena horretan, jende xeheak orkatiletan dagoeneko ura sentitu eta irteera bilatzen du korrika, baina norbaitek atea giltzaz ixten du.

Zaila egiten zait imajinatzea Usurbilgo herritar guztiekiko desleialtasun handiagoa. Hartu duzuen erabakiaren larritasuna oso larria da; izan ere, erabakiak gutxi batzuek hartzen dituzten erakunde bateko herritar izateari utzi diozue.

Gaur egungo Gizarte Larrialdiko egoeran autogobernuak izatea eragotziz, hasi besterik egin ez duen krisiaren aurrean geure burua defendatzeko.

Arbasoekiko leialtasun eza, Euskal Herriko berezko erakundeak, besteak beste Batzarre, kontserbatzeko borrokatu ziren emakume eta gizonetikiko.

Hartu duzuen erabakia ez zait ez adimentsua ez zuhurra iruditzen; izan ere, berandu baino lehen, Batzarre eta behar hutsagatik, Usurbilen erakundeak buruzko iragarpen ekonomikoak ez dira oso pozgarriak. Foru Funtzaren %20ko murrizketa lehen sintomak besterik ez da. Usurbilen Batzarre eratzenean, ez dakit zer azalpen edo justifikazio emango dituzuen. Zuek eta erabaki honen atzean daudenak.

Gabriel Valin

Ika-mika

Ucin: Bilera irekia

Anerreka elkartearen beazala Udalarari eta Eusko Jaurlaritzari hiru urte daramatzagu Jose Maria Ucin, S.A. enpresaren teiltatutik tratamendurik gabeko emisioak ateratzen ez direla berma dezatela eskatzen.

Gogora ekarri behar dugu Udalak, 2018ko uztailean Ucin S.A. enpresari emandako obra baimenean estalki berriak itxiak izango zirela ezartzen zela.

Bi urte pasa dira eta Ucin ez du obra horren txostenik aurkeztu eta teiltatuak irekita ja-

rraitzen du... eta urte bete Udalarari dagozkion neurriak har zitzan eskatzeko azken salaketa formalak aurkeztu genionetik.

Herritarrek ere teiltatu horretatik tratamendurik gabeko keak ateratzen direlako edo herrian usain kutsakorrek barreiatzen direlako Udalarari kexa adierazten urteak daramatzate.

Pausu bat haratago eman eta herritarrei salaketa formal bat jartzeko kanpaina proposatu genien. Hori dela eta udan hiru salaketa masibo burutu ditugu, azkena irailaren 19an.

Beste aldetik, Anerreka Elkarteak ikusten du Ucin

S.A.k isurketa kutsakorrik sortzen ez duela bermatzeko teiltatuaren itxiera beharrezko pausuen artean dagoela, baina ez da nahikoa. Horregatik, Udalarari zein Eusko Jaurlaritzari alegazioak aurkeztu dizkiegu beraien eskumenak erabiliz, Jose Maria Ucin, S.A.-ri emandako Sailkatutako Jardueraren Lizentzia eguneratzeko eta 2020ko ekainaren 13tik Europa mailan indarrean dauden emisio baloreak eta isuriaren eten gabeko jarraipen baldintzak txertatzeko.

Bi ekimen hauen aurrean, Ucinen aurkako salaketak eta

Ucinen jardueraren lizentzia, Udalak zein Eusko Jaurlaritzak eman dizkiguten erantzunak jakinarazteko bilera irekia egingo dugu, Potxoenean, datorren ostegunean (urriak 15), arratsaldeko 19:00etan.

Gaiak:

1. Ucinen aurkako salaketak: Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren erantzunak.

2. Ucinen jardueraren lizentzia: Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren erantzunak.

Anerreka Ingurumen Elkarteak

Emakumeen Etxeak beteko dituen helburuak finkatu dituzte

Pelaioenean kokatuko den Emakumeen Etxearen barnealdea nolako izango den definitzen hasi dira jada zenbait herritar. Udalak sustatutako egitasmoa da, eta Elhuyarreko aholkularitza teknikariek dinamizatuko dute prozesua. Ostegunean izan zen lehen bilera. Helburuak izan zituzten hizpide lehen bileran, zer funtzio beteko dituen, nori zuzendutakoa izango den, zer espero den proiektuaz...



Aurreko ostegunean izan zen lehen bilera.

Emakume ugari hartu zuten parte lehen bileran. Adin guztietako emakumeak bildu ziren Sutegiko erakusketa aretoan; ikasketak egiten ari diren emakumeetatik hasi eta jubilatuetaraino. Feminismoak bultzatuta batzuk, herriko mar txan interes berezia dutelako besteak. Guztiak helburu jakin batekin: Emakumeen Etxea definitzea. Talde txikitari ideia

LEHEN BILERA
“Adin guztietako emakumeak bildu ziren Sutegiko erakusketa aretoan”

ugari plazaratu zituzten, batzuk aurretik etxetik ekarriak, eta besteak taldean sortu eta osatutakoak.

Lehen eskuartzeak bere

fruituak eman bazituen ere, lau bilera gehiago izango dira 2020 amaieran eta 2021 hasiera bitartean. Proiektu honi beste bat gehitu zaio eta elkar elikatuko dute ezinbestean; Kalezarko udal ekipamendua ere zehazten ari baitira. Pelaioenean kokatuko dira bi guneak, eta horrexegatik daude elkarri lotuta. Azpiko taulan dituzue datozen bilera-egunak eta jorratuko diren gaiak.

Pelaioeneari lotutako parte-hartze prozesuak

Emakumeen Etxea

- Aurreikusitako bilera kopurua: 5.
- Hasiera eguna: urriak 8, 18:00 (Sutegiko erakusketa gela).
- Bileren maiztasuna: hilero lehen astean.
- Prozesuaren helburua: Emakumeen Etxearen zehaztapenekin lotutako alderdiak identifikatu eta lantzea.

Bileren edukia:

- 2. bilera (azaroan): etxearen printzipioak eta filosofia. Etxearen erabiltzaileak.
- 3. bilera (abenduan): etxearen jarduerak eta zerbitzuak. Antolaketa espaziala.
- 4. bilera (urtarrilean): etxearen

ren kudeaketa-eredua. Etxearen funtzionamendua.

- 5. bilera (otsailean): aurrera begirako bide-orria.

Auzotarren ekipamendua

- Aurreikusitako bilera kopurua: 3.
- Hasiera eguna: urriak 15, 18:00, Haur Eskola.
- Bileren maiztasuna: hilero bigarren astean.
- Prozesuaren helburua: kalezartarren beharrei erantzungo dien auzo-ekipamendua zehaztea.

Bileren edukia:

- 1. bilera (urriak 15): auzotari

ren beharrak identifikatu.

- 2. bilera (azaroan): auzotari beharrak asetzeko beharrezko espazioak definitu.
- 3. bilera (abenduan): espazioaren kudeaketa definitu.

Prozesuotan parte hartzeko:

- Aurrez izena eman eta hautatu ze parte hartze prozesuetan esku hartu nahi duzun: 943 377 110
- parekidetasuna1@usurbil.eus
- Lehen bilerarako hitzorduak zehaztu dira, hurrengo bileretakoak izena emandakoek zehaztutako lehentasunezko egun eta orduen arabera erabakiko dira.

Ordenantza fiskal aldatuak, behin betiko onartuak

Behin betiko onartu dira “eraikuntza, instalazio eta obren zergan eta zerga kudeaketaren ordenantza fiskaletan eginiko aldaketak”. Zehazkiago esanda, zergaren hobariak arautzen dituen 11. artikulua. Udalak hobariok behin betiko onartu ditu beraz:

- %90eko hobaria interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean edo enplegua sustatzeko baliagarriak izateagatik.

- %95eko hobaria eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistematik ezartzen badira autokontsumoari begira.

- %15eko hobaria etxebizitza babestutakoekin lotutako eraikuntza, obra eta instalazioetan.

- %90ekoa pertsona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun baldintzak erraztean.

Zergak ordaintzeko epeen egokitzea

Covid19aren eraginez, Udalak hartutako neurrien artean, zergen ordainketa atzeratu eta gai honetan malgutasunez jokatzera erabaki zuen. Ildo beretik, 2020ko zergen egutegia egokitzea onartu zuen uztaileko udalbatzarrean. Honatx urte amaierara arte ordaintzea falta diren zergen epeak:

- Irailak 1-urriak 16: ura, estolderia eta hondakinak (urteko 2.hiruhilekoa).

- Urriak 1-30: espaloian zehar ibilgailuak sartzea (badoa).

- Urriak 1-abenduak 10: ekonomia jardueren gaineko zerga.

Abian dira Txokoaldeko Akerra birgaitzeko lanak

Etorkizuneko Akerra bererraitzen hasiak dira Txokoalden. Txokoaldetarrek erabakitako itxura eta erabilera emateko birgaitze lanak abiatu ditu Usurbilgo Udalak. “Delsa Irun SL enpresak egingo ditu, 165.000 euroan (BEZ barne)”, Udaletik zehaztu dutenez. Lau hilabeteko tartean amaitzea aurreikusten dute.

Bi egitasmo elkarbiziko dira Akerra eraberrituan. Beheko solairuan, orain arte bezala, gaztetxearen egoitza kokatuko da, goikoa aldiz txokoaldetarren bilgunea izango da etorkizunean, “erabilera anitzerako gunearekin, komun batekin eta sukaldearekin”.

Auzoaren zerbitzura

Hala erabaki zuten duela urtebete, txokoaldetarrek Usurbilgo Udalak antolatuta eta Hiritik



Lanak lau hilabeteko tartean amaitzea aurreikusten dute.

AKERRA

Bi egitasmoren aterte izango da: Gaztetxearen egoitza eta txokoaldetarren bilgunea

At kooperatibak dinamizatu zuten parte-hartze prozesuan.

“Auzoaren beharrak identifikatu, eta behar horiek eraikin horren bidez nola ase ebatzi zuten. Horiek guztiak izan dira exekuzio proiektuaren oinarrian, eta horixe gauzatuko dute abiatu berri diren lanek”, Udaletik aditzera eman dutez.

Zaintza lanei buruzko jardunaldiak

Eskualde mailako jardunaldiok Hernanin antolatuta dituzte Emagin elkarteak eta Beterri-Buruntzako udalek urriaren 23 eta 24rako. Emagin elkarteak zaintza lanei buruz bideraturiko azterlan eta diagnosis aurkeztuko du eta gai honi buruz hausnartu eta konpromisoak hartzeko aukera izango da.

Urriak 23, ostirala (Milagrosan, Hernani)

- 17:30 Harrera.
- 18:00 “Zaintzak erdigunera. Zertaz ari gara?”.
- 19:00 Zaintza lanen demokratizaziorantz. Beterri-Buruntzaldeako zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekintzarako proposamenaren aurkezpena.

Urriak 24, larunbata (Biteri kultur etxean, Hernani)

- 10:00 Mahai ingurua.
- 12:30 Herri eztabaida: zaintza lanen demokratizaziorantz herri konpromisoak.
- Izen ematea: emagin.eus / 943 590 902.
- Antolatzaileak: Emagin elkarteak eta Beterri-Buruntzako udalak (tartean Usurbilgoa).

Zenbait udal diru laguntzen behin betiko ebazpenak

Zenbait udal diru-laguntzen behin betiko ebazpenak kaleratu ditu Usurbilgo Udalak:

Euskara ikasteko dirulaguntzak:

- Eskaera kopurua: 46.
- Onarturiko laguntza kopurua guztira: 22.145,86 euro.

Aisialdiko begirale/zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako dirulaguntzak:

- Eskaera kopurua: 9 (8 begirale ikastaroa egin zutenen artean, eskaera 1 zuzendari ikastaroa egin zutenen artean).
- Onarturiko laguntza kopurua guztira: 2.242,50 euro.

Kultur egitasmoak garatzeko dirulaguntzak:

- Eskaera kopurua: 21 eragile eskatzaile, 62 ekintza diruz lagunduak.
- Onarturiko laguntza kopurua guztira: 64.209,38 (orain Udalak %75a ordainduko du, 48.157,78).

Informazio gehiago:

- Urriaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eskuragarri.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontzeju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4 Tlf 943 37 08 78 RPS: 28/17 2017 USURBIL

Zubietaren etorkizuna eraikitzen hasteko ordua

Kirok eta kultur ekipamenduak, herri bizia, euskalduna, independentea eta sozialki aktiboa, erraustegirik gabekoa, udal txeduna, bertako produktuak salduko lituzkeen denda batekin, garraio publiko eroso lukeena, oinezkoentzako bidearekin, bidegorriarekin, gazte zein adinekoentzako bilguneekin, ibai bizia izango duena... Hauek eta beste proposamen batzuekin irudikatzen dute bizilagunek haien etorkizuneko herri Zubieta. “Guk Zubietan zer” parte-hartze prozesuaren urriaren 8ko aurkezpenean zubietarrek egindako lehen ekarpenak dituzue.

Etorkizunean nola bizi, mugitu, harremandu... galderi erantzuten ahaleginduko dira, Usurbilgo Udalak Donostiakoarekin, Zubietako Herri Batzarrarekin eta EHU-rekin elkarlanean datozen asteotarako iragarri dituzten parte-hartze saioetan. Ez dira orri huts batetik hasiko, aurretik Zubietan gaion inguruan herritarrekin egindako lanketa hartuko dute abiapuntu gisa.

Urrunago joan gabe, urte hasieran legealdiko lehentasunak finkatzeko parte-hartze saioa



Aurreko astean abiatu zen “Guk Zubietan zer” parte-hartze prozesua.

HARITZ ARRIZABALAGA

“Zubietarrentzat aukera oso polita da, guk ere asko ikasi dezakegu”

egin zuten Kaxkapen. EHU-ko arkitekturako zenbait ikasle aritu ziren espazio publikoaren inguruko lan bat egiten Herri Batzarrekoekin eta zubietarrekin batera.

“Guretzat Zubieta bat eta bakarra da”

Eremua definitua du asteotako prozesuak; Usurbilek idazketa fase betean duen Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra (HAPO). Etorkizuneko Usurbil marrazten lagunduko duen

tresna da honakoa; zer nolako espazio publikoak, etxebizitzak, jarduera ekonomikoak, ekipamenduak... izango ditugun zehaztuko du. 2014an hasi zuen Udalak aipatu plangintzaren berrikuspen prozesua. “Ordutik hainbat parte-hartze prozesu egin, hainbat dokumentu onartu ditugu eta orain HAPOa idazteko prozesuan gaude”, adierazi zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak, Zubietan bideratu nahi duten ekimenaren aurkezpenean, hilaren 8an. Hasieraz onartu nahi lukete 2021. urte amaierarako. Bide honetan, erredakziora begira finkatu dituzten irizpide orokorrak ekarri zituen gogora: herritarren parte-hartzea sustatzea “gure eguneroko bizitzari eta

etorkizuneko erronkei erantzuneko planteamendu bat egiteko”, hirigintza jasangarri eta ekologikoaren irizpideak txertatzea, genero ikuspegiarekin eta euskararekin batera.

Honenbestez, prozesu honetan Zubietako Usurbilgo lur eremua izango du jomuga. Baina Zubietaz aritu nahi dute. “Guretzat Zubieta bat eta bakarra da”, Usurbilgo alkatearen esanetan. Nahiz berezitasun batzuk badituen; dakizuen bezala, udalaren eremua da. Horregatik prozesu honen diseinuan beharrezkotzat jo bezala, bidelagun izango ditu Udalak, Zubietako Herri Batzarra noski, baita Donostiako Udala ere.

Zubietako Herri Batzarretik interesgarritzat jotzen dute prozesua. Usurbilgo alkateak aipaturikoaren ildo beretik, “guk ere Zubieta bakar bat bezala ikusten dugu eta asko eskertzen dugu beraiek ere Zubieta osotasunean hartzea”. Donostiako Udala ere horretara gonbidatu zuen alkate Haritz Arrizabalagak. “Usurbilek hitza aintzat hartuko duen bezala eskertuko genizueke zuek ere zuen prozesu honetan ateratako ondorio eta erabakiak kontuan hartzea”.

Adostasunaren bidetik

Donostiako Udaleko udal gobernu taldeko kabinete buru Iñaki Gurrutxagak Zubietako zerbitzuak berrantolatzeke Herri Batzarrak eta hiriburuko zein Usurbilgo udal sinatua duten akordioa ekarri zuen gogora. Eredugarritzat jo eta prozesu honetan ere “desadostasunak alboratu eta akordio gunera ailegatzeko” saiatzea galdegin zuen. Ezinbestekotzat jo zuen adostasunaren biderei heldzea, Zubieta bi udalerrirarenpean dagoela jakinik.

Donostiak 2010eko 12 urterako plagintza du indarrean, laster berria lantzen hastekotan dira. Orain artekoak jasoak dituen aurreikuspenez aritu zen; Almandegi ekipamendu izateaz, zubi berri bat eraikitzeaz, hipodromorako bide berriaz, dentsitate baxuko etxebizitza berriez... Donostiako Udalak ondare arkitektonikoa babesteko duen plan berezia ere aipatu zuen, Zubietakoa ere babesteko lukeena. “Zubietak badu paisaiatik aparte, balore handiko ondare arkitektoni-

koa”, bere esanetan kontuan hartzekoa. Oria ibaia ere bai; Lanbide Heziketaren potentzialtasuna baita. “Prest geundek adosteko nola handitu, zabaldu”.

“Zuen txanda da”

Asteotan bideratuko den prozesuan parte hartzeko gonbita luzatu zieten erakundeok zubietarrei. “Zuen txanda da”, adierazi zien Usurbilgo alkateak. “Etorkizuneko Zubieta irudikatu, sortu eta herri antolapenaren zertzelada na-

gusiak zehazteko unea da”, Agurtzane Solaberrietaren esanetan. “Zuengandik tokikoaz duzuen jakintza jaso nahi dugu; nola bizi zireten, zer nahi duzuen etorkizunean”, EHU-ko arkitektura fakultateko ikertzaile taldeko kide Koldo Telleriak zioen. Prozesu honetan, “iritzi guztiak izango dira ongi etorriak” gaineratu zuen. Zubietako alkatearen esanetan ere, “zubietarrentzat aukera oso polita da, guk ere asko ikasi dezakegu”.

“Guk Zubietan zer” prozesua martxan

Urriaren 8an Zubietako frontoian aurkeztu zutena, hilabete inguruko prozesua izango da, EHU-ren artekultura fakultateko ikerketa taldeko kideek dinamizatuko dute. Bi saio bi astean behin; Usurbil eta Donostiako udalen nahiz EHU-ko ikerketa taldekoen ikuspuntuak azaldu eta eztabaidatzeko hiru saio, eta haiei lotuta beste hiru lan saio praktikoa. Ekarpinak bildu, landu eta ondorioak urte amaieran aurkeztea aurreikusuten dute antolatzaileek.

Prozesua Zubietako frontoian garatuko da, beti ordu-tegi berdinean eta prebentzio neurriak hartuta. Pilotalekura sartu eta irtetea, ibilbide zirkular moduan egingo da, antolakuntzak egokitutako seinaleei erreparatu beharko zaie. Eskuak garbitzeko gela izango da, musukoa jantzita joan beharko da. Segurtasun distantzia mantenduta egingo dira saioak.



Zubietarrek eginiko ekarpinak Usurbilgo HAPO-an txertatuko dira eta plangintza honek “hurrengo 10-15 urterako Usurbil marraztuko du”.

PARTE-HARTZE PROZESUA

Prozesuak emandakoa Usurbilgo Udalak 2021. urte amaieran hasieraz onartu asmo duen HAPOan txertatu nahi dute

Frontoira sartu baino lehen, atarian, ondo begiratu. Horman, erakusketatxo bat duzue ikusgai. Abiatzear den prozesua dinamizatuko duen EHU-k

hainbat lekuetan, tartean Zubietan, espazio publikoaren eta hiri ekipamenduen inguruan eginiko lanen emaitzak.

Ingurumena eta mugikortasuna

- Urriak 20: mahai ingurua.
- Urriak 22: lan saioa.

Gizartea eta ekonomia

- Azaroak 3: mahai ingurua.
- Azaroak 5: lan saioa.

Hirigintza eta etxebizitza

- Azaroak 17: mahai ingurua.
- Azaroak 19: lan saioa.

Saioen ordutegia eta lekua:

- 18:30-20:00, Zubietako frontoia.
- Aurrez izen eman helbide honetan: hirigintza@usurbil.eus
- Sustatzaileak: Usurbil eta Donostiako Udalak, Zubietako Herri Batzarra, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).

Urriaren 25ean, film laburren uzta berria Sutegin ikusgai

Izatez alarma egoera indarrean jarri zen lehen igande hartarako, martxoaren 15erako genuen antolatua hitzordua; ezinbestean ordea atzeratu beharrean aurkitu zen NOAUA! Kultur Elkarte. Orain bai, prebentzio neurriak hartuta, urriaren 25ean (igandea baita), 18:00etan Sutegiko auditorioko butaka erosoetan eseri eta azken aldia, euskaraz sortu diren film laburrez gozatzeko gonbita luzatzen dizuegu.

Ohi bezala Euskal Herrian barrena eta atzerrian zehar bidaiatuko duen 17. ediziora heldu den Laburbira buel-



Josu Martinezen *Anti* laburmetraia ikus ahal izango dugu urriaren 25ean.

tan datorkigu Usurbila, urterot moduan NOAUA! K.E.-ren eskutik. 9 ikus-entzunezko lan labur proiektatuko ditugu. Guztira, ordubete pasatxoko (73 minutu) emanaldia. Filmotako baten zuzendaria ere,

Amaia San Sebastian gure artera etorri eta berarekin solasteko aukera izango dugu. Guztia doan. Bizi dugun osasun krisialdia tarteko ordea, aurrez eman beharko da izena usurbilkultura.eus atarian, urriaren

22a baino lehen. Ohi bezala, aforo mugak tarteko, 94 pertsonentzako lekua izango da kultur etxeko auditorioan.

9 film labur

- Gau Beltza (Topagunea).
- Urak dakarrena (lan kolektiboa).
- Anti (Josu Martinez).
- Tigre bat (Amaia San Sebastian).
- Pil Pil (Kristina Zorita)
- Mamarro (Ibon Iza Totorika).
- Kateak (Yolanda Mazkian).
- Jauzi eta prixt (Maitane Eyheramonho).
- Harria Herria (Janire Etxabe).

Covid19 hedapen handieneko hilabetea agurtu dugu

Gipuzkoan azken aldiko kutsatze maila altuena erregistratu den aste-buruko datuak ezagutzeke genituela, urriko lehen egunetan apaldu dela dirudi, Covid19 kasu berrien agerraldi kopurua. Iragan astean zehar lehen lau egunetan (hilak 5-8) kasu bakarra atzeman zuen Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Usurbilen.

Urriaren 5a izan zen, Osasun Sailak kasu berri bakar bat ere detektatu ez zuen lehen eguna, irailaren 21az geroztik. Martxoaz geroztik, zenbaturiko kasu gehienak iragan hilabeteetan atzeman ziren udalerririk honetan; sei hilabeteetan irailaren 30era arte atzemandako 80 kasutik 49 guztira, erdia pasatxo. Aurreko hilabeteke lehen astean ez zen kasurik atzeman, 11 bigarren aste osoan zehar, 10 kasu hurrengoan.

Irailaren 21etik 27ra atzeman ziren kasu gehienak; 24 guztira. Iraila amaierako azken hiru egunetan, beste 4.

7 egunetan 100.000 biztanleko kutsatze tasak nabarmen gorantz egin zuen aste horietan. Iraila hasieran, 15,83koa zen, iraila amaieran 569,80koa izatera heldu zen. Urriaren 6an, 126,62raino jaitsi zen berriaz.



Duela aste batzuk udalerririk honetan atzematen ziren kasuak, kasu isolatuak zirela dio udalak, "elkarrekin zerikusirik ez dutenak".

PCR PROBAK

Azken asteotan 148 PCR proba egitera heldu ziren Usurbilen. "Tamaina bereko herrietan egin ohi den kopurua", udal iturriek aditzen eman dutenez

"Usurbilen ez dago inolako fokurik"

Kasuak gehitzen joan ziren asteetan, Osasun Sailatik aipaturikoa gogorarazi zuen Usurbilgo Udalak: "Usurbilen ez dago inolako fokurik". Udalerririk honetan atzematen ari ziren kasuak, kasu isolatuak zirela, "elkarrekin zerikusirik ez dutenak".

PCR probak

Egunez egun egiten aritu ziren kasuen jarraipena. "Covida herriko hainbat familiatan sartu da eta, kasu batzuetan familiako kide bat baino gehiago gaixotu ditu. Edonola ere, familia gune horietan izan diren positiboek ez dute elkarrekin loturarik". Aste horietan, bi asteetan 148 PCR proba egitera heldu zirela Usurbilen ere zehaztu zuen, baina "tamaina bereko herrietan egin ohi den kopurua" da. Ordura arte plazaraturiko eskaera berretsi zuen Udalak; indarrean diren osasun gomendioak betetzen jarraitzeko deia. "Elkar zaintza baino txerto eraginkorragorik ez dago. Zaindu, Usurbil", alkateak adierazi zuenez.

Ezohiko gripearen aurkako txertaketa

Covid19-aren eraginez, aldatetak izango dira gripearen aurkako txertoa hartzeko kanpainan. Aurreratu egin dute aurtengoan eta hiru faseetan banatu, txertoa jartzeko epea.

■ Egoitzetako langile eta egoiliarrei eman nahi izan zaie lehentasuna, urriaren 5etik haiek izan dira kanpainaren honen jomuga.

■ Urriaren 13az geroztik arrisku-taldeen jar dezakete txertoa: 65 urtetik gorakoek, gaixotasun kronikoren bat dutenek edota haurdun direnek.

■ Hilaren 31tik aurrera herritar orok jarri ahaliko du. Aurrez ordea txanda eskatu beharko da ambulatortara deituta (943 36 20 13).

Txertaketa-gunea, ambulatortara azpialdean

"Covid19-aren ondorioz, segurtasun-neurri zorrotzagoak hartu dira eta, hori dela eta, aurten Osakidetza berak emango dizkie hitzorduak arrisku handiko herritarrei". Gainera, txertaketa-gunea ambulatortara azpialdean egokitu dute.

Eskualdeko Gazte Sortzaileak saretzen hasi dira

"Kultura eraikitzea" maite duten zenbait gazte *Buruntzaldeko Gazte Sortzaileak* dinamikaren inguruan batu dira. "Covid-19aren ondorioz bizitako berrogeialdiak eta jarraian etorritako Normaltasun Berrian bizitzen ari garen egoera ziurgabeak mugiarazi gaitu".

Buruntzaldeko Gazte Sortzaileak proiektuak hiru helburu nagusi ditu:

1- Eskualdeko gazte sortzaileak elkar ezagutu eta saretzeko. Horretarako Buruntzaldeko Gazte Sortzaileen Plaza sortu dute. Plataforma digital hau "eskualdeko sortzaileen topagune eta elkar harremantze tresna izateko helburuarekin diseinatu dugu".

2- Euskal kulturagileei "kolektiboki kolpatzen gaituen problematikari modu bateratuan

aurre egitea. Gure kultura pairatzen ari den bazterkeria salatu eta honi arnaguneak eskaintzeko ekimenak eta aldarrikapenak gauzatzea dagokigu".

3- Inguratzen gaituen munduarekiko kritikoa eta konprometitua den kulturagilearen figura aldarrikatzea. "Horretarako, gure eskualdeko herriak zipriztinduko dituen artegintza dinamika eta gogoeta proiektuen

gauzatzea dugu xede".

Aurkezpenak, herriz herri

Egitasmo honen xehetasun gehiago eskainiko dituzte datozen egunetan herriz herri.

■ Urriak 15 osteguna, 18:00 Hernaniko Atsegindegin.

■ Urriak 16 ostirala, 18:00 Lasperte-Oriako Kultur Etxean.

■ Urriak 22 osteguna Usurbil, 18:00 ikastolako erdiko aretoan.

Zumalakarregiri eta garaiko testuinguruari buruzko jardunaldiak, argitalpen batean

Tomas Zumalakarregi eta bera bizi izan zen garaiko testuinguruaz hizpide izan zuten duela urtebeteko jardunaldiak argitalpen batean jaso ditu Nafartarrak Taldeak. 2019ko azaroan Sutegin hainbat lagunek eskainitako hitzaldi sortan jorraturiko gaiak hain zuzen; Zumalakarregiren biografia, XIX. mendeko lehen zatian euskarak zuen egoera, komunalen gaia, “Mikel Sorauren historialari nafarrak aurkituriko agiri batzuk”...

“Oso ondo atera zen”, Nafartarrak taldeko kide Jexux Agirresarobek berriki Potxoenean egin zuten argitalpenaren aurkezpenean azaldu zuenez. Aipatu taldea Nabarralderekin batera elkarlanean egitasmo honen bueltan batu ziren. Agirresaroberen hitzaurrea du argitalpenak. “Txiki txikitatik izan dut Zumalakarregiren inguruko jakin nahia”, zioen usurbildarrak. “Gure pertsonaia historikoei” memorian leku emateko garaia badela deritzo. Bere esanetan, “memoria historikoa ez da 1936. urtean hasten”. Zumalakarregi eta bere garaia jarri zituen adibide gisa. Orduan jazotakoaz, “garaileek historia idatzi dute eta garaituek memoria eutsi. Gaurko hau izan dadila bederen, garaiko oroimena”.

Paradigma aldaketa

Garaileek idatzitako historiaz jardun zuen baita egitasmo honen parte hartzaileetako batek, Idoia Arrieta historialariak. Gehienetan historia “agintean zegoen taldeen mesederako” idazten zen eta “arazo baten aurrean gaude. Oso zaila da historia aldatzea” zioen. Aldiz, bere esanetan kontakizun hegemoniko ofizialek atera eta “elkarrizketa baten ondo-



Tomas Zumalakarregiri buruzko liburu bat plazaratu du Nabarralde. Jexux Agirresarobek egin du hitzaurrea.

**ANJEL REKALDE,
NABARRALDE**

“Oso pertsonaia interesgarria eta aberatsa izan zitekeela ikusi genuen, bere garaiko zirkunstantziak azaldu eta ulertzeko”

ria denean historiak hitz egiten du, nahi badugu. Gertaera guztiak mapa historiko batean egokitzen dira baina pieza bat aldatzen bada ondorioa ere aldatu egiten da”. Hori da bere esanetan eskuartearen zuten argitalpenak eginiko ekarpena; “paradigmaren aldaketa”.

Zumalakarregiren biografia eta bere bizitzako testuinguruak erdigunean jartzen ditu liburuak, karlisten eta liberalen bandoak bereizten zituen garai hartan, “Euskal Herrian zergatik jarri zen gehiengo Zumalakarregiren agindupean eta zergatik bat egin zuten karlismoarekin” galderari erantzuten saiatzen dira iazko jardunaldietan eta honenbestez argitalpen berri honetan parte hartu dutenek. “Euskaldunaren iraganaren ikuspegi berria

landu da. Europako nazionalismoaren hedapenarekin batera, euskal nazionalismoaz hitz egiten digute baina XIX. mendean. Paradigma aldatzeko bidea ireki dute, dokumentazio berria eskaini dute. Entzun nahi duenarentzat historiografia berri bat egiteko bidea ireki dute”.

“Garai baten ikurra”

Nabarralde “gure memoria, herri egiten gaituen ondarea” aztertzen duela gogorarazi zuen aurkezpenaren parte hartu zuen aipatu fundazioko ordezkari Anjel Rekaldek. Zumalakarregiri buruzko lan honen proposamena jaso zutenean, “oso pertsonaia interesgarria eta aberatsa izan zitekeela ikusi genuen, bere garaiko zirkunstantziak azaldu eta ulertzeko”. Argitalpeneko protagonista, “garai baten ikurra da, pertsonaia historiko oso potentea, estrategia mailan jenerio moduko bat. Bera bizi izan zen bitartean “herri honetan esperantza oso garbia zegoen inoiz irabaziko genuela”.

Zumalakarregiren atzean “zegoen munduak merezi zuen aztertzea, gogoraraztea”.

“Tomas Zumalakarregi eta bere garaia”

■ Egileak: Patxi Zabaleta Zabaleta, Juan Madariaga Orbea, Mikel Sorauren de Gracia, Asisko Urmeneta, Fernando Sanchez Aranaz, Xabier Irujo Amezaga, Idoia Arrieta Elizalde.

■ Zehaztasunak: “Zumalakarregiren pertsonaia sakontzeko, ezinbestekoa suertatuko da bere garaia eta testuinguru historikoa eza-gutzerara ematea. Horretarako, garai hartako testuinguru sozial, politiko eta ekonomikoa aztertzea izan dugu helburu: komunalen sistema, euskararen egoera, landa eremuko biztanleria, hirietako langileria... Azken finean, Zumalakarregi eta bere garaia inguruan ekarpenak egitean datza helburua, garai hartako liberalismoaren eta gaur egun luzatu den errelatoaren ikuspegitik harago”.

■ Argitalpen urtea: 2020.

■ Orrialde kopurua: 112.

■ Argitaletxea: Nabarralde.

Ander Lipus: “Guretzat pozgarria da Zaldi urdina antzezlanaren eskaini ahal izatea”

Ander Lipus aktorea maiz izan da Sutegin. Larunbat honetan *Zaldi urdina* antzezlanaren eskaintzera hurbilduko da. NOAUA!ri eman dion elkarrizketa honetan pozik eta gogotsu sumatu dugu. Sei hilabete eta gero, oholtzara itzuli berri direlako.

NOAUA! Nola bizi izan duzue konfinamendua?

Espazio eszeniko bat zapaldu gabe sei hilabete pasa ditugu eta latza izan da.

Enpresarentzat ere, galera esanguratsua izan da. Emaldi pila bat bertan behera utzi behar izan genituelako. Denbora horretan ez genuen irabazirik jaso, ia dena gastua izan zen. Saio horietako asko berreskuratu ahal izan ditugu eta orain gutxi bueltatu gara berriro Euskal Herriko antzokietara. Gogotsu gaude, hain ondo funtzionatzen ari zen antzezlanaren gustu handiz emateko gogoz.

Une gozoan zeundetela iritsi zen geldialdia.

Zorionez, estreinaldia egin ahal izan genuen eta itxialdia ezarri aurretik plaza ugari izan ginen. Poltsa bat egin genuen eta ikuskizuna martxan jartzeko egin genuen gastuari aurre egin ahal izan genion.

15 bat emanaldi galduko genituen baina asko birkokatu egin ditugu udazken honetan. Arduratsu ari gara jokatzeko. Hauskortasun eta ezjakintasun horretan murgilduta, zaila da aurrera egitea baina espero dugu taldean inork positibo ez ematea eta iragarri ditugun emanaldi denak egin ahal izatea.

Larunbatean, Jexux Artze Kultur Elkartearen eskutik etorriko zarete Sutegira. Maiatzeko egitaraua bertan behera utzi



Larunbat honetan *Zaldi urdina* antzezlanaren eskaintzera hurbilduko da Sutegira. Argazkia: Loraldia.

ANDER LIPUS

“Pandemia aurretik hain ondo funtzionatzen ari zen antzezlanaren berriro eskaintzeko gogoz gaude”

behar izan zuten baina, horren ordez, zuen antzezlanaren antolatzeke indarrak batu dituzte. Horrelako ekimenak eskertzeke modukoak izango dira, ezta?

Bai, oso eskertuta gaude. Jendeak antzezleekiko sentsibilitate berezia erakutsi du. Kulturgintzako beste esparruetako artistekin ere bai, eta hori gertatzen da.

Banekien maiatzean egiten dela Jexux Artzeren omenezko zikloa, eta badakit zer suposatzen duen Sutegi bezalako areto batean horrelako egitaraua bat prestatzeak. Horregatik guretzat pozgarria da *Zaldi urdina* bertan eskaini ahal izatea.

Bestetik, badago zerbait oso humanoa hauskortasun honetan. Eta horrek ikuskizunari plus bat ematen dio. Antzerkia komunitatea da azken batean, komunioa, eta pandemia

delako honek batzeko balio ahal duela uste dut. Antzerkia giza-ekintza da eta gizartean bere funtzioa betetzen du. Eta pandemia honetan ere bere funtzioa bete ahal duela uste dut.

Zaldi urdina antzezlanari heldu diezaiogun. Festa batean, gazte bat hil da. Heroina urdina izeneko gairak batek jota hil ere. Polizia Aingeruren bila hasiko da, droga saltzailea delakoan. Horrela esanda, drama bat dirudi baina hori baino askoz gehiago da, ezta?

Geruza askoko eta pertsonaia askoko obra bat da. Pertsonaia bakoitzak bere istorioa du, bere drama. *Thriller* euskaldun bat dela dio Ximun Fuchs zuzendariak. 80ko hamarkadan drogak gure gizartean kaltetutako hainbat gazteren eta hildakoen metafora bat da.

Hildako gazte horien familietan utzitako zauriez ez da asko hitz egin eta hori euskarri moduan hartu dugu, gaur egungo egoerara ekarri. Batzuk pertsonaia batekin identifikatuko dira, beste batzuk beste pertsonaia batekin. Ikusle bakoitzak familia baten erretratu bat

osatu du. Familia hori Euskal Herrian kokatzen dugu, gure herriak jasandako istorio bat delako eta guk lagin bat utzi nahi dugulako, fikziozkoa beti ere.

Zaldi urdina ikusteko sarrerak Lizardin eskuragarri

- Urriak 17 larunbata.
- 20:00etan Sutegin.
- Sarrerak: Lizardin 8 euro alde aurretik, 10 euro egun berean (lehiatilan).
- Sinopsia: Aingeru, 17 urteko mutil gaztea, desagertu egin da, jaialdi batean gazte bat bihotzekoak jota hil ondoren. *Zaldi urdina* deitzen den droga berri batek eragin dio heriotza gazteari. Polizia Aingeruren bila dabil, ‘trapi-txeroa’ delakoan...
- Gidoia: Unai Iturriaga, Igor Elortza.
- Zuzendaria: Ximun Fuchs.
- Zuzendari-ordea: Ainara Gurrutxaga.
- Aktoreak: Ander Lipus, Manex Fuchs, Urko Redondo, Miren Alcala, Oier Zubiaga, Edurne Azkarate, Olatz Beobide.

“Inoiz baino gehiago saldu dugu aurten”

NOAUA! Sagardotegietako lana neguko lana dela esan ohi da, eta negu bete-bete harrapatu gintuen konfinamenduak.

Salome Portu, Aialde Berri sagardotegia: Martxoaren erdialdean tokatu zen konfinamendua, justu lan gehien eta etekin gehien ateratzen dugun hilabetean. Buru-belarri ari ginen lanean, eta bigarren astebururako zapuztu zen dena. Egoera horrela tokatu zen, eta orduan amaiera eman genion denboraldiari. Udan ez dugu inoiz irekitzen ez daukagulako horretarako ohiturarik, eta aurten ere halaxe egin dugu. Sagardotegi batzuek udan irekitzeko erabakia hartu dute, baina guk ez. Datorren denboraldia prestatzen ari gara jada, txotx denboraldiarekin batera sagardotegiko atea irekitzeko. Egoeraren arabera izan beharko du horrek ere, baina behintzat ideia horrekin gabil-tza.



“Aurtengo denboraldirako hasi gara jada sagarra jotzen sagardoa egiteko”.

SALOME PORTU

Txotx garaiari begira daude honez gero.

“Aukera desberdinak aztertzen ari gara aforo kontuak eta zirkulazioa behar bezala zaintzeko”

Salmentan eraginik sumatu duzue egoera honen ondorioz?

Egia esan, inoiz baino sagardo gehiago saldu dugu aurten.

Konfinamenduaren ondorioetako bat izan zen janari dendak irekita mantentzea eta sektorean inoiz baino lan gehiago izatea, eta guk zenbait dendatan saltzen dugu sagardoa. Horren guztiaren ondorioz, aurten asko saldu dugu. Badirudi etxeko kontsumorako sagardoak arrakasta izan duela, eta oso ongi saldu da. Oraindik ere saltzen jarraitzen dugu, eta martxotik gure etekin guztiak

hortik atera ditugu.

Gertuago kanpainak ere lagunduko zuen, ezta?

Salmentetarako hartu dugu parte Gertuago kanpainan. Internet bidez erosketak egitera ez dago ohituta jendea, dendetan edo zuzenean erosten digu guri. Beraz, guk zentzu horretan hartu dugu parte. Aurrerago Udalak urtariletik aurrera bonu berriak aterako balitu sagardotegira jende gehiago animatuko litzatekeela iruditzen zait, baina ez dakit sistema honekin jarraitzeko asmorik baduten. Hala balitz gu prest parte hartzeko.

Txotx garaia begibistan da.

Erregeen Egunaren ondoren hasi ohi gara. Aukera desberdinak aztertzen ari gara aforo kontuak eta zirkulazioa behar bezala zaintzeko. Egoerak erakutsiko digu zein urrats eman behar ditugun.

“Gertuagok herriko ostalaritzari lagundu dio”

NOAUA! Txotx garai bete-bete harrapatu zintuzten konfinamenduak.

Saizar Sagardotegia: Bai, txotx denboraldiaren momentu indartsuenean gainera. Otsaila, martxoa batez ere eta apirila izaten dira hilabeterik potentienak. Konfinamendu aurreko bi asteak ere gogorrak izan ziren; jendeak bazuen halako beldur bat, eta hor bagenekien zerbait zetorrela. Nolabait txotx denboraldia izorratu zingun konfinamenduak.

Sagardo salmentek, ordea, aurrera jarraituko zuten, ezta?

Sagardotegia itxi egin behar izan genuen, baina edari salmentetan ere lan egiten dugu, eta behintzat horri eusteko aukera izan genuen. Supermerkatu eta saltoki handiei saltzeko beharra geneukan, eta bide horri heldu genion. Partikularrei ere saltzen jarraitu genuen, elikagai enpresei ere bai,



“Botilari ari gara garrantzia ematen sagardotegian, eta hala jarraituko dugu txotx denboraldia hasi arte behintzat”.

SAIZAR SAGARDOTEGIA

“Pandemiak erakutsi digu bertako produktuari balioa ematen, eta bertako jende dezente dabil sagardotegian; kanpokoak baino gehiago, noski”

baina antzeman genuen ostalaritza geldituta zegoela. Taber-

nak eta jatetxeak itxita zeudela antzeman genuen, baina jarraitu genuen beste bide horietatik martxari eusten.

Behin konfinamendua amaituta nola ekin zenioten berriz sagardotegiko martxari?

Desiratzen geunden jarraitu beharreko neurriak plazara zitzaten, ahalik eta modurik

onenean neurriak ikasi eta segurtasuna bermatuz atea ireki ahal izateko. Nahiko denbora pasatu zuten neurriak finkatzen, baina ezarri bezain pronto ekin genion lantaldea trebatzeari eta lan egiteko modu berria ikasita, berehala jarri ginen martxan. Jada ohitu gara neurri berrietara eta berriz ere hartu diogu martxa. Oraintxe hamar pertonek jaten dute mahai berean gehienez, musukoarekin beti, eskuak garbitzeko gel hidroalkoholikoa daukagu sarreran...

Urte arraro honetan bodega irekita daukazue orain?

Orain ere bodega irekita daukagu kupel gutxi batzuekin, eta edukiera neurriak kontuan hartuta kupeletik sagardoa hartzen jarrai dezakegu.

Botilari ari gara garrantzia ematen sagardotegian, eta hala jarraituko dugu txotx denboraldia hasi arte behintzat.

5G teknologiaren inguruko hitzaldiak jakinmina piztu zuen

Aitziber Elortzak eta Miren Mendibourek 5G teknologia, osasuna eta ingurumena hitzaldia eskaini zuten ostiralean Potxoenean, BiziBidek antolatuta. 5G sistema teknologikoa ezarri eta zabaltzea geldiarazi nahi dute, eta horretarako, sinadura bilketa bati ekin diote. Uhinak sor ditzaketan osasun arazoak eta ingurumenaren suntsipena izan zituzten hizpide. BiziBide elkarteak Gipuzkoan sortu zen eta gai hauetaz kontzientzia-tzea du xede.

Gaia interes bizikoa izan zen usurbildarrentzat, Potxoeneak egungo egoeran har ditzakeen 23 pertsonak bildu baitziren. Egun, edonon aurki ditzakegun uhin indartsuen eraginak aztertu eta proba ere egin zuten elektrokutsadura neurtzen duen aparatua baten bidez. Planetako bizitzarengan eragin larriak sor ditzakete uhinek, 3G eta 4G



Egun, edonon aurki ditzakegun uhin indartsuen eraginak aztertu eta proba ere egin zuten elektrokutsadura neurtzen duen aparatua baten bidez.

BALIZKO ERAGINAK

“Gaixotasun askoren muinean egon daitezke uhin bidezko teknologiak, eta Potxoenean horren guztiaren funtsa eta zergatiak aztertu zituzten”

indartsuak ziren, baina 5Ga haratago doa. Zenbait minbizik kasuren atzean ere egon daite-

ke. Animalia eta landareentzat ere berdin; ondorio kaltegarriak izan ditzake izadiarentzat.

Gaixotasun askoren muinean egon daitezke uhin bidezko teknologiak, eta Potxoenean horren guztiaren funtsa eta zergatiak aztertu zituzten. Moratoria eskatzeko egiten ari diren sinadura bilketan parte hartu nahi izanez gero, elektrokutsaduraurbil@gmail.com emailera zuzendu.

Pilota egokitua, gero eta erakargarriagoa

Euskal pilota egokituko sari nagusiaren finalak jokatu ziren aurreko igandean Erreterian. Beñat Lizasok urritasun fisikoa duten pilotarien arteko finalean hartu zuen parte. Hilario Olanorekin batera jokatu zuen binakakoa. Gutxiatik bada ere, Aingeru Senperena eta Mikel Merino bikotea nagusitu zen. 25-22 irabazi zieten Hilario Olano eta Beñat Lizasori.



Hilario Olano-Beñat Lizaso bikoteak gutxiatik galdu zuen finala.

“Usurbilgo jatorri aniztasuna eta elkarbizitza lantzen” saioa

Ostegunean (urriak 15), 18:00etan Sutegiko auditorioan. “Jatorri eta kultura aniztasun ezberdina dugunon arteko gertutasuna eta elkarbizitza hobea lortze aldera, ekintza ezberdinak diseinatu eta adostu nahi dira”. Bertaratzeko izena eman aurretik bideotatik: 943 377 110 / parekidetasuna1@usurbil.eus

Kalezarreko auzo ekipamendua diseinatzeraz

Emakumeen Etxearekin batera etorkizunean Pelaiotenean kokatuko den kalezarrentzako auzo ekipamendua zehazteko parte hartze prozesuko lehen saioa deitu du Usurbilgo Udalak ostegunerako (urriak 15) 18:00etan Haur Eskolan.

Yoga Zubietan

Astelehenetan 18:00-19:30 artean Kaxkapen. Izen emateko deitu telefono zenbaki honetara: 647 587 258.



Astelehenetan Kaxkapen batzen dira.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patxi
Patxi Mendibourek
- bazkariak EGUNERO
- afariak. ostegunetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE Nagusia 10- atzekoaldea
943 372 795

Espainiako Itzuliak Usurbil zeharkatuko du urriaren 20an

Covid19-aren ondorioz, Espainiako Itzulia txirrindularitza txapelketa abuztutik urrira atzeratu dute, baita abiapuntua aldarazi ere. Herbehereetan ospatze-koak ziren lehen hiru etapak, hurrengo Euskal Herrian. Baina azkenean Irun eta Arrate lotzekoa zen 173 kilometroko laugarren etaparekin abiatuko dute. Urriaren 20an ospatuko da eta bidean Usurbildik igaroko dira txirrindulariak.



Irunetik eguerdian abiatzekoak dira. Orereta, Pasaia eta Donostia zeharkatu ostean, Txikierritik helduko dira N-634 errepidean barrena.

Irunetik eguerdian abiatzekoak dira; Orereta, Pasaia eta Donostia zeharkatu ostean, Txikierritik helduko dira N-634 errepidean barrena. Usurbil eta Aginaga zeharkatu ostean, Oriorantz joko dute parte hartzaileek.

Errepidea, ordubetez itxita
Usurbilgo Udalak kaleraturiko ohar hau kontuan izan ho-

ERREPIDE MOZKETA
“N-634 errepidea guztiz itxita egongo da urriaren 20an, ordubete inguru, 12:45-14:00 artean”

nenbestez; udalerrri hau zeharkatzen duen N-634 errepidea guztiz itxita egongo da urria-

ren 20an (asteartea), ordubete inguru, 12:45-14:00 artean. Tarte horretan ezingo da bide hau baliatu. “Inguru horretako enpresetara zein errepidera sarbide gertukoak duten etxeetan oharrak banatuko ditu udaltzaingoak, bizilagunak jakinaren gainean egon daitezten”, Udalaren esanetan. Azaroaren 8an amaituko da itzulia Madrilan.

“Urdaiaga ezagutuz” ibilbidea

“Inguruan zeuden zetak, burdinolak, eta baserrien historia ezagutzeaz gain, Irisasi-Andatza eremutik ibilbide zoragarri bat egiteko aukera izango da” Behemendik eta Beterri-Buruntzako udalek iganderako (urriak 18) antolaturiko txangoan. 9:30ean Santueneko plazatik abiatuko da txangoa. Informazioa eta izen-ematea: 656 705 243. donostialdea@behemendi.eus

Buruntzaldeko Ibilbideen 13. Eguna

Eskualdeko bide eta landa-inguruneaz gozatzekeo parada ematen duen ekimenaren edizio birtuala iragarri dute antolatzaileek urriaren 25erako, “partehartzea online ziurtatuko delarik, nahiz eta ibilbideak oinez burutuko diren”. Informazio gehiago: kirolak.buruntzaldea.eus

“Goza dezagun emakumezkoen eskubaloiaz”

Usurbil Kirol Elkarteko senior neskek arazoak dituzte taldea osatzeko. Horren aurrean, ondorengo idatzia igorri dute NOAUA!ra.

“Duela lau urteko denboraldian, senior nesken eskubaloi taldea 2. mailan jokatzen ibili ondoren desagertu egin zen. Urtebeteko epean ez zen talderik egon. Hurrengo denboral-

dian ordea, berriro ere elkartu eta talde berri bat egiteari ekin genion, lehen urtean mailaz igo ginen eta amaitu gabeko azken urte honetan 3. mailako 1. postuan bukatu genuen denboraldia. Arrazoi ekonomikoengatik maila igoerari ezezkoa eman behar izan genion.

Aurtengo urtean ordea, ez dugu taldea osatzea lortzen. Egoerataz erabat kontziente iza-

nik aurtengo mailari eutsi nahi diogu, berriro ere talderik gabe geratu aurretik. Zaila ikusten dugu hamabiko talde bat osatzea, oraintxe sei izanik. Konpromezu maila ere asko aldatzen da, konfinamenduaren beldur garelako noski; baina badakigu normaltasuna iritsiko dela eta aurtun ez bada ere, datorren urtean normaltasunez eskubaloiaz gozatu ahal izango dugula.

Idatzi honen bitartez, deialdia egin nahi diegu herriko eta herritar ez diren emakumezkoen eskubaloiaz goza dezagun. Ez dugu berriro ere eskubaloian jokatzekeo aukerarik gabe geratu nahi, eta eskubaloian jokatu nahi duen oro ongi etorria izango da. Konpromiso maila ezberdinetara egokitzeko prest gaude. Harremanetarako kontaktua: 688 693 390”.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHASTAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ETXEBIZITZA**Salgai**

Munalurra 16, 5ªA pisu bat salgai. 3 logela, 70 metro². Ilogailua egitea onartuta dago eta berehala egingo da. 130.000 euro. [Interesatuak deitu: 617972350](mailto:Interesatuak.deitu:617972350).

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943916182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688779465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. [Tel. 650450869](mailto:Tel.650450869)

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrik doakoak dira.

Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke:

[943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus](mailto:943360321/erredakzioa@noaua.eus)

Oharrik bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Alokairuan

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratua beharrezkoa. 633141060

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. [696 014 585](mailto:696014585)

Alokairuko pisu baten bila nabil. [Tel. 620 708 265 / 686 143 786](mailto:Tel.620708265/686143786).

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Nissan Note 1600 gasolina kotxea daukat salgai, GRD matrikuladuna. 634416863

Volkswagen "escarabajo" bat saltzen dugu. Kotxe klasikoa baina oso egoera onean dago. 656704299.

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. [626 735 354](mailto:626735354)

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. [Tel. 616 235 366](mailto:Tel.616235366).

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Udan LH1eko (7 urte) ume bati klaseak emateko pertsona baten bila nabil Usurbilen. 626474232

Irailetik aurrera emakume bat behar dugu bi umei bazkaltzen eman eta eskolatik jasotzeko. Orduetgia zehazteko daukagu. 658706443

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes

gelak gustatzen bazaizkizu bidali [CV info@quantum.eus](mailto:CVinfo@quantum.eus) helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: [629 951 931](mailto:629951931).

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainkategi erretegian. [680 483 164](mailto:680483164)

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakoko kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. [Tel. 699 760 873](mailto:Tel.699760873)

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

24 urteko neska gaztea. Arratsaldez umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingelesezko irakaslea naiz baina

bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo heldue-na. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Interesatuak deitu: [631 489 128](mailto:631489128).

Astelehenetik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 631157290.

Pertsona helduak zaintzeko gizonetara eskaintzen da. Lanaldi osorako edo orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrak emateko prest naiz Usurbilen. 648059422

Saio partikularrak emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta iaz Ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelesez ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuaren haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. [664192760 / 722 48 39 94](mailto:664192760/722483994).

Esperientzia eta erreferentziak di-

**Zorionakkk Danel!**

Urriaren 15ean 10 urte egingo dituzu.

Ondo ospatu zure eguna! Muxu asko etxekoan partez.

OHARRA: 2020ko urriaren 23an aterako dugu hurrengo astekaria. Oharririk edo zorion agurrik baduzue, urriaren 19a baino lehen helarazi.

Emailaz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

tut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrek zaintzeko edo garbiketari aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deitzeko. Esperientzia zabala zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zainza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa.

Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke.

Esperientziaduna. Telefono zenbakia: 666097595.

Telefono interesgarriak

Udala.....	.943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	.943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	.900 776 776	Taxia (Angel).....	.607 928 770
Udaltzaingoa.....	.943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	.677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	.943 370 148	Eusko Tren.....	.943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	.697 919 516	LurraldeBus.....	.943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	.943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	.943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	.943 361 215	Anbulategia.....	.943 362 013
Bake Epaitegia.....	.943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	.943 376 076
Udarregi Ikastola.....	.943 361 216	Iturralde botika.....	.943 363 395
Haur Eskola.....	.943 374 061	DYA.....	.943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	.943 364 600	Gurutze Gorria.....	.943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	.943 372 077	Emergentziak.....	.112
Hastapen tailerrak.....	.943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	.900 840 111 / 016
KZgunea.....	.943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	.943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	.943 372 498	Kutxabank.....	.943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	.943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	.943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	.943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	.607 609 379	Banco Popular Español.....	.943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	.943 365 249	BBVA.....	.943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	.943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	.943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	.943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	.901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	.692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	.902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	.943 361 239	Telefonica.....	.1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	.943 360 321	Euskaltel.....	.900 840 840

BESTELAKOAK

Zaldi bat salgai. 2013koa. Nuri. Domatua. Burukoa, arnesa eta eserlekuarekin. Informazio gehiago: Amaia 943341900 eta Joxan 699870308.

Alabak giltza batzuk galdu ditu, astelehen ostegun bitartean, Torre Eiffel duela giltza kate gisa. Topatu badituzu, hona deitu: 617002046

Batxilergo 1. eta 2. mailako matematika klase partikularrak emateko norbaiten bila nabil. Klaseak gure etxean izatea nahiko genuke. 649482775

Frantseseko klaseak ematen ditut udan, norberaren etxean. 600766068 Jokin

Isabelita Mandarina Japoniarrak (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den alabarentzat. 627184674.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Ataluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehene-tik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Heriotzak

Jesus Urkiola

Borda

Urriaren 12an
hil zen,
76 urterekin



Goardiako farmaziak Urriak 15 - Urriak 25

Osteguna 15 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 16 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 17 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 18 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astelehena 19 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteazkena 21 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Osteguna 22 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 23 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 24 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 25 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN-HERNANI
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda urria

15 osteguna

- **Pelaioenea definitzeko partehartzeko prozesuaren hasiera** 18:00etan Haur Eskolan.
- **Usurbilgo jatorri aniztasuna eta elkarbizitza lantzen** 18:00etan Sutegiko auditorioan.

17 larunbata

- **Antzerkia: "Zaldi Urdina"** 20:00etan Sutegin. Sarrerak: Lizardin 8 euro aldezturik, 10 euro egunean bertan Sutegin.

18 igandea

- **"Urdaiaga ezagutzuz" irteera gidatua.** 9:30ean Santueneko plazan.

Udal Liburutegiak hiru ekitaldi antolatu ditu datozen egunetarako

Joseba Larratxe marrazkilariak Joana Maiz komiki liburuari buruzko azalpenak eskainiko ditu eta Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariak bi saio eskainiko ditu.

Urriak 22, osteguna

- 19:00 Euskarazko Literatura Solasaldia: Joseba Larratxek marrazturiko "Joana Maiz" komikia mintzagai. Liburuak eskuragarri daude Liburutegian". Izen-ematea liburutegian: 943 360 692.

Urriak 27/29, asteartea eta osteguna

- 18:00 Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria. Hilaren 27an 4-5 urtekoentzat, 29an

Ziortza, ikasturte hasieran

Ziortza gazte elkartearen ikasturtean parte hartzeko asmoa dutenek email bat helarazi behar dute izen abizenak eta ikasketa maila adierazita, ziortzage@gmail.com helbidera, "eta berehala bidaliko dizugu baimen-orria". Baimen orria inprimatua, beteta eta sinatuta eraman beharko da lehen saiora, "bestela ezingo baituzue parte hartu". Saioen egutegia:

- DBH1 eta DBH3, hilero 3. ostiraletan.
- DBH2 eta DBH4, hilero 4. ostiraletan.



Yurre Ugarte eta Joseba Larratxeren 'Joana Maiz' komiki liburua arituko dira urriaren 22an.

6 urtetik gorakoentzat. Gonbidapenak, usurbilkultura.eus bidez eskuratu behar dira (ekitaldi bakoitza ospatu baino bi egun lehenago beranduenez). Haurrak heldu batek lagunduta etor daitezke.

Ordutegiak zehaztu dituzte Gaztelekuan

12 urtetik gorakoei zuzendua dago Gaztelekua. Ordutegi honetan zabaltzen dute:

- Astelehena: 16:30-19:30.
- Osteguna: 16:30-19:30.
- Larunbata: 16:00-19:00.

Informazio gehiagorako:

- Gaztelekuan aipatu ordutegian (San Inazio kalea 3).
- gaztelekuausurbil@gmail.com
- 943 371 050 / 688 713 838.

Datozenak

Zumarte Musika

Eskolaren inaugurazioa

Garbitze eta hornitze lanak amaituta, gune berritua erabiltzen hasteko moduan izango dute Orbeldi Dantza Taldeak eta Zumarte Musika Eskolak. Birgaitze eta handitze lanen emaitza bertatik bertara ezagutzeko bisitak antolatu ditu Usurbilgo Udalak herriarrentzat urriaren 24rako.

Urriak 24, larunbata

- 11:00/11:30/12:00 Bisitak.
- 12:30 Inaugurazio ekitaldia.
- Izen ematea: hezkuntza@usurbil.eus
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

17. Laburbira Sutegin

Urriaren 25ean 9 film labur ikus ahal izango ditugu Sutegin. 18:00etan hasiko da proiektzioa. Sarrerak: doan, baina aurretik eskuratu behar dira usurbilkultura.eus atarian.

- Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkartea.

Urriaren 25ean, ordu aldaketa

Urriaren 25ean erlojuak neguko ordutegira egokitu beharko ditugu. Goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira.

Inaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

600 024 825

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus

Josue Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

BAZKIDEEN TXOKOA



Jexux Artze Kultur Elkarteak antolatuta
Sarrerak: Lizardin 8 € aldez aurretik,
10€ egun berean (leihatilan).

Urriak 17,
larunbata
20.00etan Sutegin

'Zaldi urdina'
antzezlan

noaua! euskararen aterpe

NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu urriaren 15ean

bazkide esiten bazara. opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkarte@noaua.eus

URRIAK 25, IGANDEA

Laburbira

Euskarazko film laburren XVII.zirkuitua - 2020

URRIAK 25, 18:00 SUTEGIN

SARRERA DOAN. Gonbidapena usurbilkultura.eus plataformaren bitartez hartu behar da.



GAU BELTZA
Euskaltzalen Topagunea



URAK DAKARRENA
Marilyn taldea



ANTI
Josu Martinez



TIGRE BAT
Amaia San Sebastián



PIL PIL
Kristina Zarita



MAMARRO
Ibon Iza Totorika



KATEAK
Yolanda Mazkieran



JAUZI ETA PRIXT
Maitane Eyheramato



HARRIA HERRIA
Dimegaz Kultur Elkarte



noaua



Zozketa iPhone 11



Nola parte hartu:

1°

URBILEKO APP-A
DESKARGATU

2°

“SUSTAPEN ESKLUSIBOAK”
ATALEAN SARTU


3°

“ZOKKETAK ETA SUSTAPENAK”
SAKATU

4°

IPHONE 11 KUPOIA
AKTIBATU

AZAROAREN 13RA ARTE PARTE HARTU



Gure App-a deskargatu
eta abantaila eksklusiboez
gozatu!

BLOG



urbil.es